

**Recurso 2/2012 Errekurtsoa**  
**Resolución 2/2012 Ebazpena**

Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Idazkaria-Batzordekidea / Vocal Secretaria

M<sup>a</sup> Aránzazu Arana Learte

ORTOPEDIA SUMISAN S.L. enpresak Foru Administrazioko eta Funtzio Publikoko Departamentuko foru diputatuak 2012ko uztailaren 23an emandako Foru Aginduaren aurka –Gizarte Politikako Departamentuaren ardurapean dauden Gerontologiako Egoitzetarako ohe eta osagarriak hornitzeko kontratua (X12001 espediente) AYUDAS TÉCNICAS ARABA S.L. enpresari esleitu baitzion– ezarritako kontratazio gaitako errekurtso berezian, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegia Administratiboa, 2012ko 16ko bilkuran, goian adierazitako kideak bertan direla, honakoa erabaki zuen aho batez.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por ORTOPEDIA SUMISAN S.L. contra la Orden Foral de la Diputada del Departamento de Administración Foral y Función Pública de 23 de julio de 2012 por la que se adjudica a la empresa AYUDAS TÉCNICAS ARABA S.L. el contrato de suministro de camas y accesorios para los Centros Gerontológicos del Departamento de Política Social (expediente nº X12001), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada el día 16 de octubre de 2012, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

**AURREKARIAK**

**LEHENENGO.-** Auzitegi honen erregistroan, 2012ko abuztuaren 6an, (...), ORTOPEDIA SUMISAN S.L. enpresaren izen eta ordezkapenean aurkatutako idatzia jaso genuen. Idatzi horren bidez, kontratazio gaitako errekurtso berezia jarri zuen Foru Administrazioko eta Funtzio Publikoko Departamentuko foru diputatuak 2012ko uztailaren 23an emandako Foru Aginduaren aurka, Gizarte Politikako Departamentuaren ardurapean dauden Gerontologiako Egoitzetarako ohe eta osagarriak hornitzeko kontratua (X12001 espediente) AYUDAS TÉCNICAS ARABA S.L. enpresari esleitu baitzion. Litzazio horretarako iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, hain zuzen, 2012ko otsailaren 8an.

**BIGARREN.-** Auzitegi honek, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak (SPKLTB) 44.5 artikuluan

**ANTECEDENTES DE HECHO**

**PRIMERO.-** El día 6 de agosto de 2012 tuvo entrada en el registro de este Tribunal un escrito por el que (...), actuando en nombre y representación de ORTOPEDIA SUMISAN S.L., interpone recurso especial en materia de contratación contra la Orden Foral de la Diputada del Departamento de Administración Foral y Función Pública de 23 de julio de 2012 por la que se adjudica a la empresa AYUDAS TÉCNICAS ARABA S.L. el contrato de suministro de camas y accesorios para los Centros Gerontológicos del Departamento de Política Social (expediente nº X12001), cuyo anuncio de licitación había sido publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 8 de febrero de 2012.

**SEGUNDO.-** Conforme a lo dispuesto en el artículo 44.5 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre (TRLCSF), mediante



ezarritakoari jarraituz, aldez aurretik kontratazio organoaren aurrean errekurtsoa iragarri izanaren egiaztatzea hiru eguneko epean aurkezten eskatu zion errekurtsogileari; izan ere, 44.4.e) artikuluan xedatutakoaren arabera, iragarki hori aurkeztu gabe ezin baita bideratu goian aipatutako errekurtso berezia.

Abuztuaren 10ean, errekurtsogilearen legezko ordezkariaren idatzi bat jaso genuen Auzitegi honen erregistroan. Idatzi horrekin batera, egindako errekerimenduari erantzunez, errekurtso berezia jartzeko asmoa iragarri hil horren 9an kontratazio organoaren aurrean aurkeztutako idatziaren kopia aurkeztu zuen.

**HIRUGARREN.-** Auzitegiak, abuztuaren 10ean bertan, errekurtsoa jartzeko idatziaren kopia bat bidali zion kontratazio organoari, eta kontratazio espedientearen zehazki txostena eskatu zizkion, SPKLTBaren 46.2 artikuluan agintzen duen moduan. Era berean, gogorazi zion, SPKLTBaren 45. artikuluan xedatutakoa betez, eta kontuan harturik errekurtso hori esleipen egintzaren aurka aurkeztu zela, kontratazio espedientearen etenda geratzen zela.

Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoko Departamentuko idazkari teknikoak egin eta Auzitegi honen erregistroan abuztuaren 23an sartutako ofizioaren bitartez, 959 orriz osatutako espedientearen eta kontratazio organoaren txostena jaso ziren. Txosten horretan, errekurtsoaren zioak aztertu ondoren onduz geroz, errekurtso hori ezetsi egin beharko litzateke.

**LAUGARREN.-** Auzitegi honek, SPKLTBaren 46.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta abuztuaren 28ko ofizioaren bitartez, errekurtsoa AYUDAS TECNICAS ARABA S.L. enpresari bidali zion, bost laneguneko epean alegazioak aurkezteko aukera emanez.

Enpresak, ofizioa irailaren 4an jasorik, alegaziorik ez du aurkeztu.

**BOSGARREN.-** Auzitegi honetako batzarkide idazkariak, Maria Yeregui Hernandez andreak, jakinarazi duenez, errekurtso honen azterketan, eztabaidan eta bozketan ezin du parte hartu; izan ere, 2012ko martxoaren 1az geroztik, Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoko Departamentuko idazkari teknikoak baita. Auzitegiak onartu egin du abstentzio hori.

oficio de 7 de agosto el Tribunal requirió a la recurrente para que en el plazo de tres días acompañase el justificante de haber anunciado previamente el recurso ante el órgano de contratación, sin el cual, a tenor del artículo 44.4.e), no puede darse curso al escrito de interposición.

El 10 de agosto tuvo entrada en el registro del Tribunal un escrito de la representante legal de la recurrente por el que, en respuesta al requerimiento, adjuntaba copia del escrito presentado ante el órgano de contratación el día 9 del mismo mes anunciando la interposición del recurso.

**TERCERO.-** El mismo día 10 de agosto el Tribunal remitió al órgano de contratación una copia del escrito de interposición del recurso y le solicitó el expediente de contratación y el correspondiente informe, tal como ordena el artículo 46.2 TRLCSP. Le recordó asimismo que, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 45 TRLCSP, y dado que el recurso se interpone contra el acto de adjudicación, la tramitación del expediente de contratación quedaba en suspenso.

Mediante oficio de la Secretaria Técnica del Departamento de Administración Foral y Función Pública que tuvo entrada en el registro del Tribunal el día 23 de agosto, fueron remitidos el expediente, que consta de 959 folios, y el informe del órgano de contratación, en el cual, tras analizarse los motivos del recurso, se concluye que debería ser desestimado.

**CUARTO.-** En cumplimiento del artículo 46.3 TRLCSP, mediante oficio de 28 de agosto el Tribunal dio traslado del recurso a la empresa AYUDAS TÉCNICAS ARABA S.L. para que en el plazo de cinco días hábiles pudiera formular alegaciones.

La empresa, que acusó recibo del oficio el día 4 de septiembre, no ha presentado alegaciones.

**QUINTO.-** La Vocal Secretaria de este Tribunal, María Yeregui Hernández, ha comunicado su obligación de abstenerse de intervenir en el estudio, deliberación y votación de este recurso, dado que desde el 1 de marzo de 2012 ostenta el cargo de Secretaria Técnica del Departamento de Administración Foral y Función Pública. Abstención que ha sido aceptada por el Tribunal.



## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

### Errekurtsoa onartua izateko aukera

**LEHENENGOA.-** Errekurtso berezi hau horniketa kontratu baten esleipen egintzaren aurka jarri da. Kontratu horren balio zenbatetsia 242.000 euro, gehi bidezko zergak, izango da.

Horrela bada, kontuan harturik, horniketa kontratu hau SPKLTBaren 15.1.b.) artikuluan aipatzen diren eta erregulazio harmonizatuari lotuak dauden kontratuetakoa bat dela, errekurritutako egintzaren aurka jar daiteke kontratazio gaietako errekurtso berezia, hala xedatua baitago 40. artikuluko 1.a) eta 2.c) apartatuetan. Eta errekurtso horren berri izateko eskumena Auzitegi honi dagokio, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortzeko eta arautzeko 24/2010 Foru Dekretuak, irailaren 28koak, 2.3.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

**BIGARRENA.-** Errekurtsoa, SPKLTBaren 42. artikuluan xedatutako legitimazio eskakizuna betetzen duen pertsonak ezarri du, 44.2 artikuluan finkatutako epearen barruan, eta gainera asmo horren berri eman dio kontratazio organoari, 44.1 artikuluan ezarritako eran.

### Gaiaren mamia

**HIRUGARRENA.-** Errekurtsogileak Kontratazio Mahaiak esleitutako puntuazioa aurkatu egin du, proposamenaren bi alderdi hauei dagokienez: saldu osteko zerbitzua eta berme-epealdia. Eta, bidezkotzat jo dituen arrazoiak azaldu ondoren, errekurtsoa onartuko duen eta honako hauek jasoko dituen ebazpena eskatu du:

- saldu osteko zerbitzuaren balorazioa gutxienez puntu batez gehitzea, eta errekurtsogileak eskainitako berme guzti-guztiak baloratzea;

- 2.- ordeko izaeraz, saldu osteko zerbitzuaren balorazioa gutxienez puntu batez gehitzea, eta oheei buruz eskainitako bermea –5 urteko berme-epealdia– baloratzea;

- 3.- ordeko izaeraz, saldu osteko zerbitzuaren balorazioa gutxienez puntu batez gehitzea, eta osagarriei buruz eskainitako gutxieneko bermea –2 urteko berme-epealdia– baloratzea;

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

### Admisibilidad del recurso

**PRIMERO.-** El presente recurso especial se interpone contra el acto de adjudicación de un contrato de suministro cuyo valor estimado es de 242.000 euros, más impuestos correspondientes.

Por lo tanto, tratándose de un contrato de suministro sujeto a regulación armonizada, de los contemplados en el artículo 15.1.b) TRLCSP, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1.a) y 2.c) del artículo 40. Y la competencia para conocer del mismo corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.3.a) del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**SEGUNDO.-** El recurso ha sido interpuesto por persona que reúne el requisito de legitimación establecido en el artículo 42 TRLCSP, dentro del plazo previsto en el artículo 44.2 y habiéndolo anunciado al órgano de contratación en la forma prevista en el artículo 44.1.


### Fondo del asunto

**TERCERO.-** La recurrente impugna la puntuación asignada por la Mesa de contratación a dos aspectos de su proposición: el servicio posventa y el plazo de garantía. Y tras exponer los motivos que considera pertinentes termina solicitando que se dicte resolución por la que, con estimación del recurso:

-se incremente en al menos un punto la valoración del servicio posventa y se puntúe la totalidad de las garantías ofertadas por la recurrente;

-2º, subsidiariamente se incremente en al menos un punto la valoración del servicio posventa y se puntúe la garantía ofertada por las camas, esto es, 5 años;

-3º, subsidiariamente se incremente en al menos un punto la valoración del servicio posventa y se puntúe la garantía menor de las ofertadas por los accesorios, esto es, 2 años;



- 4.- ordezkotzaeraz, saldu osteko zerbitzuaren balorazioa gutxienez puntu batez gehitzea; -4º, subsidiariamente se incremente en al menos un punto la valoración del servicio posventa;
- 5.- ordezkotzaeraz, errekurtsogileak eskaintako berme guzti-guztiak baloratzea; -5º, subsidiariamente se puntuará la totalidad de las garantías ofertadas por la recurrente;
- 6.- ordezkotzaeraz, oheei buruz eskaintako -5 urteko berme-epealdia- baloratzea; eta -6º, subsidiariamente se puntuará la garantía ofertada por las camas, esto es, 5 años; y
- 7.- ordezkotzaeraz, osagarriei buruz eskaintako gutxieneko bermea -2 urteko berme-epealdia- baloratzea. -7º, subsidiariamente se puntuará la garantía menor de las ofertadas por el accesorio mesillas, esto es, 2 años.

**LAUGARRENA.-** Aurrera egin aurretik, planteatutako gaiak behar bezala ulertu ahal izateko, ezinbestekoa da espedientetik bidezko datua ateratzea.

**CUARTO.-** Antes de continuar es preciso extraer del expediente los datos necesarios para una adecuada comprensión de las cuestiones planteadas.

Ezaugarri teknikoen agirian deskribaturik daude hornitu beharreko oheen eta osagarrien ezaugarriak: gau-mahai paladunak, gau-mahaiak eta latexeko koltxoiak. Hautazko elementu gisa, honakoak ere eskaini zitezkeen: trendelemburg eta antitrendelemburg sistemak, eta oheetarako potentzia tabularreko arkua, trapezioaz eta serum-euskarriaz hornitua.

En el pliego de prescripciones técnicas se describen las características de las camas y de los accesorios a suministrar: mesillas de noche con pala, mesillas de noche y colchones de látex. Como elementos opcionales podían ofertarse el sistema trendelemburg y antitrendelemburg y el arco de potencia tabular con trapecio y porta-sueros para las camas.

Kontratuaren esleipena, honako irizpide hauek baloratuta egitekoa zen:

La adjudicación del contrato había de llevarse a cabo mediante la valoración de los siguientes criterios:

1. Ezaugarri teknikoak: % 35.

1. Características técnicas: 35%.

2. Saldu osteko zerbitzua: % 10.

2. Servicio posventa: 10%.

3. Prezioa (gutzizkoa): % 45.

3. Precio (total): 45%.

4. Prezioa (hautazkoak): % 5.

4. Precio (opcionales): 5%.

5. Berme-epealdia: % 5. Kontratuaren baldintza administratibo berezien agiriaren IV. eranskinean zehazten denez, urtebeteko berme-epealdiari 0 puntu emango zaizkio, eta 5 urteko berme-epealdiari, berriz, 100 puntu; eta gainerakoak bi puntuazio horien artean kokatuko dira.


5. Plazo de garantía: 5%. Según se precisa en el anexo IV del pliego de cláusulas administrativas particulares del contrato, se otorgarán 0 puntos por un plazo de garantía de un año y 100 puntos por un plazo de garantía de 5 años, y se interpolará el resto.

Irizpide guztiak 0 eta 100 bitarteko puntuazioaz baloratu behar ziren, eta gero, bakoitzaren haztapenez biderkatu.

Todos los criterios habían de valorarse con una puntuación de 0 a 100 que posteriormente debía multiplicarse por la ponderación de cada uno.

Balio-judizio baten arabera ebaluatu beharreko 1 eta 2 esleipen-irizpideei buruzko dokumentazioa 2 zenbakiko gutunazalean sartu behar zen; eta gainerakoak (proposamen ekonomikoa eta berme-epealdia), 3 zenbakiko gutunazalean.

La documentación relativa a los criterios de adjudicación 1 y 2, cuya evaluación depende de un juicio de valor, debía incluirse en el sobre número 2, y el resto (proposición económica y plazo de garantía) en el sobre número 3.



Hamaika proposamen aurkeztu ziren.

Se presentaron once proposiciones.

Kontratazio Mahaiak 2012ko ekainaren 11n erabaki zuen aurkeztutako bi proposamen baztertzea, eta gainerako bederatzien balorazioa onartzea, balio-judizio baten arabera ebaluatu beharreko esleipen-irizpideei dagokienez. Eta horretarako, gai honi buruz eskatutako txosten teknikoak onartu zuen. Errekurtsogilearen eskaintzak 35 puntutik 27 lortu zituen ezaugarri teknikoaren atalean; eta 10 puntutik 8, saldu osteko zerbitzuaren atalean.

El 11 de junio de 2012 la Mesa de contratación acordó excluir dos de las proposiciones presentadas y aprobó la valoración de las nueve restantes en lo relativo a los dos criterios de adjudicación cuya evaluación depende de un juicio de valor, aceptando para ello el informe técnico que había solicitado al respecto. La oferta de la recurrente obtuvo 27 puntos sobre 35 en el apartado de características técnicas y 8 sobre 10 en el de servicio posventa.

Kontratazio Mahaiak, ekainaren 15ean, jendaurreko egintzan bildurik, 3 zenbakiko gutunazalak ireki eta bertan egindako eskaintzak baloratu zituen, era automatikoa balora daitezkeen hiru esleipen-irizpideei dagokienez. Errekurtsogilearen eskaintzak 45 puntutik 45 lortu zituen guztizko prezioaren atalean; 5 puntutik 0, hautazko elementuen prezioaren atalean; eta 5 puntutik 0, berme-epealdiaren atalean.

El 15 de junio la Mesa, reunida en acto público, procedió a la apertura de los sobres número 3 y valoró las ofertas en lo relativo a los tres criterios de adjudicación evaluables de forma automática. La oferta de la recurrente obtuvo 45 puntos sobre 45 en el apartado de precio total; 0 puntos sobre 5 en el precio de elementos opcionales, y 0 puntos sobre 5 en el plazo de garantía.

Baldintzen agirian ezarritakoaren arabera, gutxienez hamabi hilabeteko berme-epealdia eskaini behar zen. Errekurtsogileak, bere eskaintzan, 5 urteko berme-epealdia proposatu zuen ohe eta elementu osagarrientzako (aginteen kasuan izan ezik, horientzako urtebetekoa eskaini baitzuen); 3 urte koltxoientzako eta 2 urte gau-mahaiantzako.

El pliego establece que el plazo de garantía era a ofertar, con un mínimo de doce meses. La recurrente proponía en su oferta un plazo de garantía de 5 años para las camas y elementos opcionales (excepto para los mandos, que era de un año), 3 años para los colchones y 2 años para las mesillas.

Esleipen-irizpide guztien puntuazioak baturik, puntuaziorik handiena AYUDAS TÉCNICAS ARABA S.L. enpresaren eskaintzak lortu zuen (80,75 puntu), eta bigarrena, errekurtsogileak aurkeztutakoari egokitu zitzaion (80 puntu).

Sumadas las puntuaciones de todos los criterios de adjudicación, la mayor puntuación total correspondió a la oferta presentada por AYUDAS TÉCNICAS ARABA S.L. (80,75 puntos) y la segunda fue la de la recurrente (80 puntos).

Azkenik, uztailaren 23ko Foru Aginduaren indarrez, AYUDAS TÉCNICAS ARABA S.L. enpresari esleitu zaio kontratua.


Finalmente, por Orden Foral de 23 de julio el contrato ha sido adjudicado a la empresa AYUDAS TÉCNICAS ARABA S.L.

**BOSGARRENA.-** Saldu osteko zerbitzuaren balorazioari dagokionez, errekurtsuok dio, Kontratazio Mahaiak eskatutako txosten teknikoaren arabera, errekurtsogilearen eskaintza da hoberena, alde gutxiaz bada ere. Hala eta guztiz ere, 8 puntu eman zaizkio, gainerakoei 9 eman zaizkien arren; baina, eskaintza hoberena bada, berak izan behar zukeen puntuaziorik handiena, edo handienak hainbestekoa bederen

**QUINTO.-** En lo que concierne a la valoración del servicio posventa el recurso afirma que, según se dice en el informe técnico solicitado por la Mesa de contratación, el de la recurrente es el mejor de todos, aunque con poca diferencia, y se le puntúa con un 8, a pesar de lo cual a otros tres licitadores se les puntúa con un 9, cuando en realidad, si es la mejor, debería haber recibido la mayor puntuación o al menos tanto como la que más.

Kontratazio organoak errekurtsuok buruzko txostenean gogorazten duenez, ezaugarri teknikoaren agirian ezarritakoaren arabera, kontuan hartuta hornitzen diren ohe eta osagarriek mantentze-lanak eskatuko dituztela, lizitatuak orain duten edo aurrerantzean izatera konprometitzen diren saldu osteko zerbitzua

En el informe emitido en relación con el recurso el órgano de contratación recuerda que, según el pliego de prescripciones técnicas, dado que las camas y accesorios que se vayan suministrando requerirán un servicio de mantenimiento, se valorará el servicio posventa del que dispongan o se comprometan a



baloratuko da. Hori horrela, beren eskaintzan saldu osteko zerbitzuaren memoria sartzea exijitzen zitzairen, eta memoria horretan, gutxienez honakoak adieraztea: zerbitzu hori emateko duen hurbileneko puntua, zerbitzu horretara bidera ditzakeen teknikariak, erantzun denbora, teknikarien orduko prezioa, eta elementu aldakinen prezioen zerrenda. Horrela, bere saldu osteko zerbitzua era zabalagoan defendatzeko aukera osoa zeukan lizitatzailleak, baina irizpide hau baloratu ahal izateko eskaintzan jaso beharreko gutxienezko alderdiak ezarri ziren.

Kontratazio organoak egiaztatu duenez, hain zuzen ere aurkeztutako eskaintzetatik hiru eskaintzek 9 puntu lortu zituzten irizpide honetan; beraz, aitortzen du, errekurtsogilearen eskaintza, 8 puntu lortuta, hobereña izan zela esatea oker bat izan dela, baina horrek ez duela esan nahi, besterik gabe, gutxienez 9 puntu eman behar zaizkionik. Horretarako, eskaintzak alderatu beharra zegoen, eta beraz, taula batean ipini zituen puntuaziorik hoberenak lortutako lau lizitatzailleek emandako datuak. Taula hori ikusita ondorioztatzen denez, guztiak ere bat datoz erantzun denboran eta aldakinen zerrendaren aurkezpenean. Laguntza Teknikoko Zerbitzuetik oheak hornituko diren guneez hurbiltasuna ere antzekoa da; beraz, teknikari kopuruan eta lanekuen orduko prezioan bilatu behar dira batzuen eta besteen arteko aldeak. SIO enpresak egindako eskaintza oinarritzat harturik, hauxe da kontratazio organoaren txostenean arrazoitu dena:

- Muebles Arun enpresak teknikari baten ordez bi ditu, baina orduko prezioa nabarmen garestiagoa da; beraz, bi eskaintzak antzekotzat jo daitezke, eta horregatik, 9 puntu eman zaizkio bakoitzari.

- Flex enpresaren teknikari taldea askoz ere ugariagoa da (hamabost), baina SIO enpresak Azpeititik artatzen duen eta bere jarduera esparrua Gipuzkoa den bitartean, Flex enpresak Bilbotik ematen du zerbitzua. Beraz, pentsa liteke teknikari talde horren jarduera esparruak gutxienez Gipuzkoa eta Bizkaia hartzen dituela, eta horrek erlatibizatu egiten du aipatutako abantaila. Gainera, orduko prezioa ere oso garestia du, baina aitzitik, bera da urtero inolako kosturik gabeko berrikuspina eskaintzen duena, eta horrek konpentsa lezake prezio garestiago hori. Hori horrela, bere osotasunean hartuta, aurreko bi eskaintzen antzekotzat jo dugu, eta puntuazio bera eman (9 puntu).

- Errekurtsogileak teknikari baten ordez bi eskaintzen

disponer los licitadores, para lo cual se les exigía incluir en la oferta una memoria del servicio posventa en la que se indique al menos el punto más próximo de servicio posventa, el personal técnico disponible, el tiempo de respuesta, el precio hora del personal técnico y la lista de precios de los elementos de repuesto. De manera que el licitador tenía libertad para abundar más extensamente en la defensa de su servicio posventa, pero se establecían los aspectos mínimos que debe contener su oferta para que este criterio pudiera ser valorado.

El órgano de contratación constata que, efectivamente, tres de las ofertas presentadas obtuvieron 9 puntos en este criterio y admite, por tanto, que la afirmación de que la de la recurrente, que obtuvo 8, es la mejor constituye un error; pero añade que de ello no se deduce por sí solo que se le deban otorgar al menos 9 puntos. Para eso es necesario comparar las ofertas, lo que lleva a cabo mediante un cuadro en el que se reflejan los datos facilitados por los cuatro licitadores que obtuvieron mayor puntuación y del que se obtiene la conclusión de que todos coinciden en el tiempo de respuesta y en la presentación de la lista de repuestos. La cercanía del Servicio de Asistencia Técnica con respecto a los centros donde se suministrarán las camas es también similar, por lo que los aspectos diferenciadores se centran en la plantilla de técnicos y en el precio hora de la mano de obra. Y tomando como base la oferta de la empresa SIO el informe del órgano de contratación razona lo siguiente:

- La empresa Muebles Arun tiene dos técnicos en lugar de uno, pero tiene un precio hora considerablemente superior, por lo que las ofertas pueden considerarse similares y por eso se les ha otorgado a ambas 9 puntos.

- La empresa Flex tiene una plantilla de técnicos mucho más amplia (quince), pero así como SIO atiende desde Azpeitia y su área de actuación es Gipuzkoa, Flex atiende desde Bilbao, por lo que cabe suponer que el área de actuación de esta plantilla es al menos Gipuzkoa y Bizkaia, lo que relativiza esta ventaja. Por otra parte, su precio hora es muy elevado, pero en cambio es la única que ofrece una revisión anual sin coste, lo que puede compensar ese coste superior. Por ello esta oferta se ha calificado en conjunto como similar a las dos anteriores y se le ha otorgado la misma puntuación (9 puntos).

- La oferta de la recurrente tiene dos técnicos en lugar



ditu, baina orduko prezioa ia bikoitza du. Muebles Arun enpresaren datuak antzekoak, baina orduko prezioa, aldiz, % 23 garestiagoa.

Txostenak dio, amaitzeko, errekurtsogileak eskaintako saldu osteko zerbitzua ez dela hoberena; izan ere, beste hiruak zertxobait hobeak baitira. Horregatik, Kontratazio Mahaiak hari puntu bat gutxiago ematea erabaki zuen, eta ez da ahaztu behar, horretarako egin den balorazioa ez dela soil-soilik formula bat aplikatuta lortua, balio-judizio bat emanda baizik.

**SEIGARRENA.-** Berme-epealdiaren balorazioari dagokionez, errekurtsuan diote, kontuan hartuta kontratuaren helburua ondasun desberdinak hornitzea dela, zentzuzkoa dela ondasun horietako bakoitzarentzako berme-epealdi desberdina ezartzea; eta enpresa errekurtsogileak horixe egin zuela bere eskaintzan, betiere baldintza-agirian ezarritako gutxieneko epea mantenduta. Eta gainera, eskaintzako berme-epealdi desberdin guztiak baloratu ordez, gutxienekoa bakarrik (urtebete) baloratzearekin, Administrazioak ez duela bete baldintza-agirietan eskatutakoa, eta baldintza horiek aldatu egin dituela horretarako legezko eskakizunak errespetatu gabe.

Gainera, dio, Administrazioak bere egintza propioen aurka egin duela; izan ere, eskaintza egin aurretik, interesdunak gai honi buruzko kontsulta egin zuen telefonoz, Foru Aldundian, eta zera erantzun zioten: eskaintzen zituzten produktu desberdinek berme-epealdi desberdinak bazituzten, ez zegoela arazorik epe desberdinak eskaintzan zehazteko, inprimakiak ematen zuen eremua gainditzen ez bazuten behintzat. Horixe egin zuten eta, diotenez, informazio hori bestelakoa izan balitz, Administrazioaren irizpideari jarraituz aurkeztuko zuketuen beren eskaintza.

Laburbilduz, beren iritziz, berme-epealdi bat baino gehiagoko eskaintzetan eperik laburrenekoa bakarrik baloratuta, baldintza-agirien interpretazio ez-zentzuzkoa egin zuen Kontratazio Mahaiak.

Azkenik, diote, orain errekurritu duten foru aginduak ez dituela bete SPKLTBaren 151.4.c) artikuluan ezarritako arrazoitze betekizunak.

Kontratazio organoaren txostenean, SPKLTBaren 100. artikulua ekarri dute gogora. Eta artikulua horren d) apartatuan ezarritakoaren arabera, hornidura-kontratuetan, hornitutako ondasunetan akatsik edo hutsik ez egoteko erantzukizunari egin behar dio aurre behin betiko bermeak, kontratuan aurreikusitako berme-epealdi osoan. Eta, 102. artikuluan arabera,

de uno, pero su precio hora es casi el doble. Sus datos son bastante similares a los de Muebles Arun, pero su precio hora es un 23% superior.

El informe concluye afirmando que la oferta de servicio posventa de la recurrente no es la mejor, ya que las otras tres son algo mejores, razón por la cual la Mesa de contratación decidió otorgar un punto menos a aquélla, realizando una valoración que, recordémoslo, no consiste en la mera aplicación automática de una fórmula, sino en la emisión de un juicio de valor.

**SEXTO.-** Por lo que respecta a la valoración del plazo de garantía, el recurso sostiene que dado que el contrato tiene por objeto el suministro de bienes diversos es razonable diferenciar el plazo de garantía para cada uno de ellos, que es lo que hizo la empresa recurrente en su oferta, siempre con el mínimo de doce meses fijado en los pliegos; y aduce que al no haber valorado los distintos plazos de garantía ofertados, sino solamente el menor de ellos (un año), la Administración ha incumplido los pliegos y los ha modificado sin respetar las exigencias legales para hacerlo.

Afirma también que la Administración ha ido contra sus propios actos porque antes de presentar la oferta realizaron una consulta telefónica en la Diputación en relación con este tema, y se les contestó que si los distintos productos que ofertaban tenían diferentes garantías no habría problema en que indicaran el detalle de los distintos plazos siempre que no ocuparan más espacio del que ofrecía el impreso. Así lo hicieron, y dicen que si esa información hubiera sido otra habrían presentado su oferta según el criterio de la Administración.

Consideran, en fin, que la Mesa de contratación, al puntuar en las ofertas de más de un plazo de garantía únicamente el de menor duración, realizó una interpretación no razonable de los pliegos.

Y alegan por último que la orden foral recurrida incumple los requisitos de motivación establecidos en el artículo 151.4.c) TRLCSP.

Por su parte, el informe del órgano de contratación recuerda lo que dispone el artículo 100 TRLCSP, a tenor de cuyo apartado d) en el contrato de suministro la garantía definitiva responderá de la inexistencia de vicios o defectos de los bienes suministrados durante el plazo de garantía que se haya previsto en el contrato. Y que según el artículo 102 la garantía no



bermea ez da itzuli edo ezereztuko, harik eta berme-epea amaitu edota dena delako kontratua behar bezala bete arte. Adierazitakotik ondoriozta daitekeenez, berme-epea bakarra da eta horniketaren alde guztiak barnebiltzen ditu.

Kontratazio organoaren iritziz, lizitatzaille batek berme-epe desberdinak eskaintzen baditu hornitutako elementu desberdinentzako, elementu guztiak estaltzen dituen epea izango da aintzat hartu beharrekoa, hau da, eperik laburrena alegia; izan ere, beste edozein epe luzeagok bermearen estalduratik kanpo utziko lituzke hainbat elementu.

Txostenean adierazten denez, espediente honetako baldintza-agirietan ez dago lizitatzailleak elementu desberdinen arabera epealdi desberdinak proposatzera bultza ditzakeen adierazpenik, eta gainera, agiri horietan formula oso zehatza ipini da aurreikusitako berme-epe bakarra baloratzeko. Edo, beste era batera esanda, berme-epe partzialak edo elementuen arabeko epe desberdinak proposatzeak, agirietan aurreikusitako formula aplikatu-ezina dakar berarekin.

Txostenean adierazten denez, halaber, Kontratazio Mahaiak pentsa zezakeen elementuen arabeko berme-epe desberdinak proposatzen zituen eskaintza bat, agirietan eta legean ezarritakoaren aurkakoa dela eta, ondorioz, horrelakorik erakusten zuten eskaintzak lizitaziotik baztertzea erabaki. Mahaiak, alabaina, baldintza-agiriak aipatutako planteamendua egindako lizitatzailleen mesederako interpretatuta, erabaki zuen eskaintza horiek ez baztertzea eta kontratuko elementu eta zati guztiak estaltzen dituen epea hartzea benetako berme-epetzat; hau da, proposatutako eperik laburrena, alegia. Mahaiak horixe egin zuen errekurtsogilearen kasuan.

Azkenik, kontratazio organoak ezetsi egin ditu enpresa errekurtsogileak, bere errekurtsuan, berme-epeak baloratzeari buruz azaldutako aukerak; hau da:

- berme-epe gisa, oheentzako ezarritakoa hartzea (5 urte), horniketaren elementu nagusia delako;
- eskaintako epeen batez bestekoa ateratzea, nahiz eta hori nola egin errekurtsuak azaltzen ez duen;
- oheen aginteentzako proposatutako urtebeteko berme-epea aintzat ez hartzea, gainerakoetan laburrena baizik, hau da, gau-mahaiantzat proposatutako bi urteko epealdia, alegia.

será devuelta o cancelada hasta que haya vencido el plazo de garantía y se haya cumplido satisfactoriamente el contrato. De todo lo cual se deduce que el plazo de garantía es único e incluye todas las partes del suministro.

Para el órgano de contratación, si un licitador propone plazos de garantía diferentes para elementos diferentes, el plazo a considerar será aquél que cubra todos y cada uno de ellos, es decir, el menor de los propuestos, ya que un plazo superior a éste excluiría a algunos elementos de la cobertura de la garantía.


Dice el informe que en los pliegos de este expediente no existe indicación alguna que pueda llevar a los licitadores a proponer plazos de garantía diferentes por elementos, y que la fórmula establecida en ellos para valorar el plazo de garantía es totalmente precisa y sólo prevé un único plazo, o dicho de otra forma, la propuesta de plazos de garantía parciales o diferentes por elementos conduce a la inaplicabilidad de la fórmula prevista en los pliegos.

El informe añade que la Mesa de contratación bien pudo haber considerado que una oferta que propusiera plazos de garantía diferentes por elementos era contraria a los pliegos y a la ley, y haber excluido las que incurrieran en esta circunstancia. Sin embargo, haciendo una interpretación de los pliegos favorable a los licitadores que hicieron este planteamiento, decidió no excluir sus ofertas y tomar como plazo de garantía aquél que incluyera a todos los elementos y partes objeto del contrato, es decir, el menor de los propuestos. Y eso es lo que hizo la Mesa en el caso de la recurrente.

Por último, el órgano de contratación rechaza las alternativas expuestas en el recurso para valorar los plazos de garantía ofertados por la empresa recurrente, a saber:

- tomar como plazo de garantía el de las camas (5 años) por ser el elemento principal del suministro;
- hacer un promedio de los plazos ofrecidos, aunque el recurso no dice cómo habría que hacerlo;
- no tomar en consideración el plazo de un año propuesto para el mando de las camas, sino el menor de los restantes, que sería el de dos años propuesto para las mesillas.





Txostenean adierazten denaren arabera, aukera horietako edozein, baldintza-agirien interpretazio interesatua egitea litzateke, eta horren kontra erraz egin lezakete gainerako lizitatzailleek.

**ZAZPIGARRENA.-** Errekurtsoa bultzatu duten arrazoiak eta kontratazio organoak errekurtso horren aurrean erakutsi duen aurkakotasuna ikusirik, Auzitegi honen iritziz, errekurtsoan aipatutako lehendabiziko gaiari dagokionez, hau da, errekurtsogileak aurkeztutako saldu osteko zerbitzua baloratzeari dagokionez, esleipen-irizpide hori balioesteko balio-judizioa egin behar da, hots, izaera teknikoko alderdiak begiratu behar dira. Ondorioz, erabat aplikagarria da Auzitegi Nagusiak, Administrazioaren zuhurtziari buruz, behin eta berrito berretsi duen dotrina, esate baterako, 2000ko uztailaren 19ko epaian (4.324/94 kasazio errekurtsoan).

Dotrina horren arabera, Kontratazio Mahaiak irizpide erabat teknikoak erabilita egiten dituen balorazioak, beste organo batek ezin ditu zuzendu irizpide juridikoak erabilita. Horrek ez du esan nahi era horretako balorazioak beste organo batzuek inoiz aztertu ezin dituztenik, baizik eta azterketa horrek, balorazioaren alderdi formaletara mugatu behar duela soil-soilik; esate baterako, eskumen edo prozedura alorreko arauak bete diren; balorazioa egiterakoan irizpide bidegabeak edo diskriminatzaileak erabili diren, edota balorazioa egiterakoan akats materialik izan den. Gorabehera horietatik aparte, Auzitegi honek ezin du ordeztu Administrazioaren teknikariek egindako balorazioa, teknikariei objektibotasuna suposatzen baita; eta, bidegabekeria edo akatsen bat gertatu dela frogatu ezean, Administrazioaren zuhurtzia teknikoak errespetatu egin behar du.

Kontratazio Mahaiak, aztergai dugun kasu honetan, automatikoki baloratu ezin diren irizpideak –besteak beste, saldu osteko zerbitzua– baloratu ahal izateko eskatutako txosten teknikoan ezarritako puntuazioei eutsi zien. Aipagai dugun errekurtsoa dela eta, balorazio hori azaldu eta berretsi egin da kontratazio organoak egindako txostenean, ebazpen honetako bosgarren oinarrian jasotako terminoetan. Eta hori ikusita ezin da ondorioztatu inolako bidegabekeria, diskriminazio edo akatsik izan denik, are gutxiago antolamendu juridikoa edota kontratuaren baldintza-agirietan ezarritakoa urratu denik. Beraz, ezetsi egin behar dugu errekurtsoan lortu nahi dena, errekurtsogileak eskainitako saldu osteko zerbitzuaren balorazioari gutxienez puntu bat eranstekoa.

**ZORTZIGARRENA.-** Bigarrenik, berme-epealdiari


Cualquiera de estas opciones son, según el informe, interpretaciones interesadas de los pliegos que podrían ser fácilmente rebatidas por otros licitadores.

**SÉPTIMO.-** Vistos los motivos del recurso y la oposición al mismo formulada por el órgano de contratación, este Tribunal entiende que por lo que se refiere a la primera de las cuestiones planteadas en el recurso, esto es, la valoración del servicio posventa ofertado por la recurrente, el juicio de valor que es preciso realizar para valorar dicho criterio de adjudicación consiste en una apreciación de aspectos de carácter técnico, y que, por consiguiente, resulta de plena aplicación la doctrina reiteradamente sostenida por el Tribunal Supremo en sentencias como la STS de 19 de julio de 2000 (recurso de casación 4324/94) sobre la discrecionalidad técnica de la Administración.

Según esa doctrina, las valoraciones que se efectúan por la Mesa de contratación aplicando criterios estrictamente técnicos no pueden ser corregidas por un órgano distinto aplicando criterios jurídicos. Ello no implica que el resultado de este tipo de valoraciones no pueda ser en ningún caso objeto de análisis por parte de otros órganos, sino que este análisis debe limitarse de forma exclusiva a los aspectos formales de la valoración, tales como las normas de competencia o de procedimiento, a que en la valoración no se hayan aplicado criterios arbitrarios o discriminatorios, o a que no se haya incurrido en error material al efectuarla. Fuera de estos aspectos, este Tribunal no puede sustituir la valoración realizada por los técnicos de la Administración, a los que hay que presumir objetividad, y debe respetar la discrecionalidad técnica de la Administración a falta de prueba alguna de arbitrariedad o error.

En el caso que nos ocupa la Mesa de contratación se atuvo a las puntuaciones establecidas en el informe técnico que había solicitado para valorar los criterios no evaluables automáticamente, entre ellos el servicio posventa. Esa valoración ha sido explicada y ratificada ahora, con ocasión del presente recurso, en el informe elaborado por el órgano de contratación, en los términos que hemos dejado recogidos en el fundamento quinto de esta resolución. Y de ella no se deduce arbitrariedad, discriminación ni error alguno, ni mucho menos infracción del ordenamiento jurídico o de los pliegos del contrato, por lo que la pretensión del recurso de que se incremente en al menos un punto la valoración del servicio posventa ofertado por la recurrente debe ser desestimada.

**OCTAVO.-** En segundo lugar, en cuanto a la



dagokionez, Auzitegi honek ez du antzeman baldintza agirietan puntu honen inguruan ezarritakoa beteez, aldatu edota gaizki interpretatu denik; aitzitik, baldintza horiek zentzuz eta legearekin bat interpretatu direla esan daiteke.

Auzitegiak, puntu honetan, bere egiten ditu kontratazio organoak adierazi dituen eta seigarren oinarrian laburbildu ditugun argudioak. Baldintza administrazio berezien agirian, karatularen 12. atalean ezarritakoaren arabera, berme-epealdia (singularrean) "eskaini" egin beharko da, betiere gutxienez hamabi hilabetekoa izango delarik. Eta agiriaren IV. eranskinean argi eta garbi dago esleipen-irizpide hori baloratzeko jarraituko den formula: 1 urte, 0 puntu; 5 urte, 5 puntu (gehienekoa); eta gainerakoak tartean kokatuko dira.

Formula hori erabiltzeak, eskaintza bakoitzeko berme-epe bakar bat aintzat hartzea dakar berarekin, hornitu beharreko ondasunak era askotakoak badira ere. Hori horrela, erabat zentzuzkoa da Mahaiak hartu duen erabakia, hau da, errekurtsogileak oheen aginteetarako proposatutako hamabi hilabeteko epea hartzea berme-epe gisa; izan ere, hori baita kontratuaren helburu diren ondasun guztiak estaltzen dituen epea. Hori baino epe luzeagoa ezin da baloratu; izan ere, errekurtsogileak egindako eskaintzaren arabera, garbi dago ohearen agintea erosten denetik urtebete igarotzean, bermerik gabe geratuko litzatekeela.

Ondorio horiei begira, Departamentuko teknikari batek errekurtsogileak telefonoz egindako kontsultari emandako erantzunak ez du garrantzirik, errekurtsogilea bera baita azken batean aurkeztu zuen eskaintzako terminoen erantzulea. Mahaiak emandako interpretazioari jarraituz, atal honetan puntuazio handiagoa lortzeko nahikoa izango zukeen gutxienez hamabi hilabetetik gorako berme-epealdia eskaintzea. Hori horrela egin ez izana ezin zaio leporatu, inondik ere, Administrazioak hitzez emandako informazioari.

**BEDERATZIGARRENA.-** Azkenik, errekurtsogileak dio SPKLTBaren 151.4.c) artikuluan xedatutakoa ez dela bete, errekurritutako foru agindua behar beste arrazoitu ez delako. Bada, hasteko esan behar dugu, errekurtsoarean erreguan ez dela eskatu, arrazoi hori dela-eta, agindua deusezteko eta, jakina, prozeduran atzera egiteko, behar beste arrazoitutako ebazpena ematearren; izan ere, horixe izango litzateke, hain zuzen, salatutako arau-haustearen berezko ondorioa. Beraz, ez dago irizpenik eman beharrik errekurtsoko


valoración del plazo de garantía, el Tribunal no aprecia que se hayan incumplido, modificado o malinterpretado los pliegos en este punto, sino, más bien, que éstos se han interpretado de una manera razonable y conforme a la ley.

El Tribunal asume en este punto las alegaciones del órgano de contratación, que hemos resumido en el fundamento sexto. El pliego de cláusulas administrativas particulares establece, en el apartado 12 de la carátula, que el plazo de garantía (en singular) será "a ofertar", con un mínimo de doce meses. Y el anexo IV del pliego fija con claridad la fórmula para valorar este criterio de adjudicación: 1 año, 0 puntos; 5 años, el máximo de 5 puntos; y se interpolará el resto.

La aplicación de esa fórmula lleva implícita la exigencia de considerar un solo plazo de garantía por cada oferta, con independencia de que los bienes a suministrar sean diversos. Siendo eso así, la decisión de la Mesa de tomar en consideración como plazo de garantía el de doce meses propuesto en la oferta de la recurrente para los mandos de las camas es del todo razonable, porque ese es el plazo que cubre a todos los bienes objeto del contrato. No se puede valorar un plazo superior porque a tenor de la oferta de la recurrente es obvio que transcurrido el primer año desde su adquisición el mando de la cama dejaría de estar cubierto por la garantía.

Resulta irrelevante a estos efectos la respuesta dada por un técnico del Departamento a la consulta telefónica realizada por la recurrente, porque los términos de la oferta que ésta finalmente presentó son de su exclusiva responsabilidad. Con la interpretación que hizo la Mesa, para obtener mayor puntuación en este apartado le habría bastado con que el plazo de garantía mínimo que ofertó hubiera sido superior a doce meses. El no haberlo hecho así no es achacable, desde luego, a la información verbal facilitada por la Administración.

**NOVENO.-** Por último, en cuanto al alegado incumplimiento del artículo 151.4.c) TRLCSP por insuficiente motivación de la orden foral recurrida, hay que empezar por decir que en el suplico del recurso no se pide la nulidad por esta razón con la consiguiente retroacción del procedimiento para que se dicte nueva resolución debidamente motivada, lo cual sería la consecuencia natural de la infracción denunciada. Por lo tanto, no cabe pronunciarse sobre una pretensión no formulada en el suplico del recurso.



eskaeran adierazi ez den zerbaiti buruz.

Arestian adierazitakoa hala izanik ere, egia da kontratua esleitzeko foru aginduan ez dela jaso xedapen horrek eskatzen duen informazio guztia. Baina egia da, halaber, horrek errekurtsogileari ez diola eragotzi orain aztergai dugun errekurtsoa behar beste oinarrituta aurkeztea; eta horixe da, hain zuzen, agindua arrazoitzeko betekizunak bermatzen duena.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, 63.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, formazko akatsak, egintzak bere helburua lortzeko formazko ezinbesteko baldintzak betetzen ez dituenean, edo interesdunak babesik gabe uzten dituenean bakar-bakarrik ekarriko du deuseztagarritasuna.

Alabaina, aipagai dugun kasu honetan ez da gertatu bi zirkunstantzia horietako bat bera ere; beraz, SPKLTBaren 151.4.c) artikulua ez-betetze horrek ez luke ekarriko, inolaz ere, kontratua esleitzeko foru aginduaren deuseztagarritasuna.

**HAMARGARRENA.-** SPKLTBaren 47.4. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio gaietako errekurtsu bereziaren ebazpenean, halaber, esleipen egintzaren etenaldia bertan behera uzteko erabakia hartu behar da, baldin eta ebazpena emateko garaian, etenaldiak indarrean jarraitzen badu.

**HAMAIKAGARRENA.-** Errekurtsoan ez dugu antzeman SPKLTBaren 47.5 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Auzitegi hau errekurtsogileari isuna jartzera bultzatzen fedetxar edo ausarkeriarik.

Ondorioz, kontratazio alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

### ERABAKI DU

**LEHENENGO.-** Ezestea, ORTOPEDIA SUMISAN S.L. enpresak jarritako kontratazio gaietako errekurtsu berezia.

**BIGARREN.-** Esleipen egintzaren etenaldia bertan behera uztea, SPKLTBaren 45. artikuluan xedatutakoa betez.

Con independencia de lo anterior, es verdad que la orden foral de adjudicación no recoge toda la información que dicho precepto exige, pero no lo es menos que eso no le ha impedido a la recurrente interponer el presente recurso de manera suficientemente fundada, que es precisamente lo que la exigencia de motivación trata de garantizar.

De acuerdo con el artículo 63.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, el defecto de forma sólo determinará la anulabilidad cuando el acto carezca de los requisitos formales indispensables para alcanzar su fin o dé lugar a la indefensión de los interesados.

Ahora bien, ninguna de esas dos circunstancias se da en el presente caso, por lo que la pretendida infracción del artículo 154.1.c) TRLCSP en ningún caso sería determinante de la nulidad de la orden foral de adjudicación.

**DÉCIMO.-** Según lo dispuesto en el artículo 47.4 TRLCSP, la resolución del recurso especial en materia de contratación debe acordar también el levantamiento de la suspensión del acto de adjudicación si en el momento de dictarla continuase suspendido.

**UNDÉCIMO.-** No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer al recurrente una multa en los términos previstos en el artículo 47.5 TRLCSP.

En su virtud, este Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

### ACUERDA

**PRIMERO.-** Desestimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por ORTOPEDIA SUMISAN S.L.

**SEGUNDO.-** Levantar la suspensión automática del acto de adjudicación prevista en el artículo 45 TRLCSP.

**Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako  
Foru Auzitegi Administratiboa**

**Tribunal Administrativo Foral de  
Recursos Contractuales**



**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA  
DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**

SPKLTBaren 45. artikuluan ezarritakoarekin bat, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 49.1 TRLCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Donostia / San Sebastián, 2012ko urriaren 16/16 de octubre de 2012.**